

Hitza

Printze Txikia: haurtzaroaren nostalgia*

MARIASUN LANDA

«Helduek inoiz ez dute ezer ulertzen beren kabuz, eta umeentzat nekagarria da beti dena azaldu behar izatea»

Aurten XX. mendeko egilerik nabarmenenetako baten jaiotzaren mendeurrena bete da: Antoine de Saint Exupéry (1900-1944). Hegazkinekiko grinak harrapaturiko idazle hau, bere kirol hegazkinean galdu baitzen arrastorik utzi gabe, liburuska handi baten egilea da: *Printze Txikia* (1942), diotenez munduko hizkuntza guztietara itzulia, katalana, euskara eta galegoa barne. Gaztelaniazko edizioan bakarrik, milioi bat aletatik gora saldutakoa dela uste dut. Haur literaturako idazlan klasiko bat da, aspaldi honetan Frantziako *media* guztien jomuga baita; izan ere, galdeketa-
ren baten arabera, frantses askoren iritziz XX. mendeko libururik onena da. Parisera egin berri dudana bidaia batean egiaztatu ahal izan dut Printze Txikiaren inguruko gauzakien ugaltzea, *souvenirs* denda guztietan: postalak, giltzatak, kuxatxoak, koadernoak, bolalumak eta beste asko, Tour Eiffel berarekin ere konkurrentzian. Pentsatzera iritsi naiz ez ote gauden obra literarioaren beraren argia eta edertasuna estali eta iluntzen dituen merkatal fenomeno tipikoaren aurrean. Ba al daukate gure neska-mutilek obra horren berri? Balioesten al dute? Zergatik gusta-

tzen zaie hainbeste helduei hain gaizki agertarazten dituen obra bat? Zenbait ahotsen arabera, *Printze Txikia* haurtzaroaren izenean haurtzaroari gogoz kontra ezarritako liburu horietako bat da. Helduek nostalgiaren izenean beren haurrei eskainitako klasiko bat, xalo eta kutsatu gabe irudikaturiko haurtzaro bat, galdutako paradisu bat...

Izatez, *Printze Txikia*, berriro ere, mundua eta bizitza deskubritzen dituen ume baten ibilbide inizatikoaren kontakizuna da, giza izaera ezagutu eta salatzerara bideratzen duten zazpi pertsonaien bidez: erregea, harroputza, edalea, negozio gizona, farozaina eta geografoa, eta horiekin batera narratzailea, Saint Exupéry-ren *alter ego* delakoa. Sinbolismoz gainezka datozen pertsonaia eta gai horiek erregistro poetikoan narratuta daude, eta helduen munduaren berekoikeria, ohikeria eta elkartasun eza irudikatzen dituzte. Istorioa, bide batez esanda, aski ezkorra da; izan ere –lehenago Peter Pan-ek ere egin zuen bezala–, Printze Txikia bere asteroidera itzultzen da, hau da, bere haurtzarora, helduen munduaz desilusionatu eta gogaiturik.

Hitza

Printze Txikia ez da, noski, liburuska erraz eta atsegina, gaur eguneko neska-mutilek hain gus-tuko duten horietakoa. Aitzitik, gehiago da isto-rio ironiko, enigmatiko eta malenkoniatsua, haur eta gazte literaturako obra handi guztiak bezala behin eta berriz irakurri eta interpretatua. Oso litekeena da lehen lerroetatik irakurle gaztea ez harrapatzea, halako harridura eta egoneza sorta-raztea... Horixe gertatu zitzaidan niri eskuarte-an izan nuen lehenbiziko aldian, bederen.

Inoiz kontatu izan dudan legez, nire haurtzaroko mojen ikastetxean, soilik neskez osaturiko tuna bat sortu zuten, beren kapa beltz eta zerren-da koloretsuekin zorutzen ninduen. Bandurria jotzen ikastea eta tuna zorioneko hartan ateratzea zen nire gogo bakarra garai hartan, baina etxean ezetz esan zuten. Ezetz eta ezetz. Denbora galtzea omen zen. Askoz egokiago jo zuten frantsesa ikasten has nendin, Batxillergoaren hurbiltasunaren aurrean. Egokitu zitzaidan mojak neke handiz dezifratu behar izan nuen liburu bat erosarazi zidan Hendaian: *Le petit prince*. Hala hasi zen kalbario-irakurketa bat, zeinetatik liburua-ren atariko ilustrazioa geratu baitzait gogoan ba-tez ere: han ageri den kapelua ez da kapelu, ele-fante bat irentsitako boa bat baizik. Soilik gero-ago, nire frantses-maila nekez hobetuz zihoan neu-rrian, harrapatu ninduen istorioak, protagonis-taren bakardadeak:

«—Izan zaitezte nire lagunak, bakarrik nago —esan zuten Printze Txikiak.

—Bakarrik nago... bakarrik nago... bakarrik nago —erantzun zuten oihartzunak».

Gaur egun ere hunkitzen nauen aipua da. *Moi aussi*, aitortu behar izan nuen neure baitan une hartan; izan ere, orduan bakarrik konturatzen naiz liburu hura desberdina dela, niri buruz ari dela...

Ondorioa: pertsonaia maitatzen hasi nintzen eta gorroto piska bat gutxiago diot frantsesari. Nahi gabe, irakurle onen literatur formazioa era-bat markatzen duten bi esperientziaren protago-nista izan nintzen: lehena, literatur liburu bat ere ez dela hezgarria, ez eta literatur gaitasuna lan-tzeko balio ez duela egiaztatzea, baldin eta litera-turaz kanpoko beste edozertarako erabiltzen bada, hizkuntzen irakaskuntza barne; eta, bigarrena, *Printze Txikia* irakurtzea nire bizitzan gertatu-riko zerbait garrantzitsu gisa bizi izatea: irakur-keta horretatik ez nintzen salbu atera, liburu hark neure baitako esperientzia bilakatu baitzuen itzulpen ariketa soil bat izan behar zuena. Litera-tur esperientzia izan zen, zer pentsatua eman zi-dan liburua izan zelako, ez testuari berari buruz soilik, neuri buruz baizik; ezagupenak ez ezik, autodeskribapenerako, sentitzen dugunari izena jartzeko, geure burua hobeto ezagutzeko hiztegi berri bat ere eskaini zidalako.

Nire ustez, *Printze Txikia* gaur eguneko hau-rrek dastatzeko eskubidea, eta ez betebeharra, duten liburua da. Adinik gabeko liburua, heldue-kin batera irakurtzeko oso egokia eta, zorte piska batekin, literatura esperimenteratzeko bide pibi-lejiatua izan daitekeena, nire kasuan izan zen bezala. Hau da, Marcel Proust-en hitzetan, «bakardadean gertatzen den komunikazioaren mirakulu emankorra» ezagutzeko.

*Artikulu honen gaztelaniazko bertsio bat *Bilbao* Udal Kazetan argitaratu da (*Pérgola*, 141. zkia., 2000.eko abuztua).